# Iragarpenak
# Anuncios


INDUSTRIA ETA ENERJIA-SAILA

Arabako Kondaira-Lurraldean, aipatzen diren elektra-antolapidetzak jartzeko egitasmoen HERRI-ARGIPIDEKETA. 1852

Aipatzen diren elektrabideak jartzeko egitasmoen HERRI-ARGIPIDEKETA. 1854

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Ingurugiro, Ur eta Estoldesare-Sailerako, lehiaketa bidez, traktorea EROSTEA. 1856

Ingurugiro, Ur eta Estoldesare-Sailerako, lehiaketa bidez, harri ateragailu bat EROSTEA. 1857

Ingurugiro, Ur eta Estoldesare-Sailerako, lehiaketa bidez, Edonorako Ibilgailu bat EROSTEA. 1858

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA Y ENERGIA

INFORMACION PUBLICA de los proyectos de las instalaciones eléctricas que se citan, en el Territorio Histórico de Alava. 1852

INFORMACION PUBLICA de los proyectos de las instalaciones de las líneas eléctricas que se citan. 1854

DIPUTACION FORAL DE GUIPUZCOA

ADQUISICION por concurso de un tractor para el Departamento de Medio Ambiente, Aguas y Saneamiento. 1856

ADQUISICION de una máquina despedregadora para el Departamento de Medio Ambiente, Aguas y Saneamiento. 1857

ADQUISICION por concurso de un automóvil "Todo terreno" para el Departamento de Medio Ambiente, Aguas y Saneamiento. 1858


# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## HEZKUNTZA ETA KULTURA-SAILA

**634**

1984.eko Otsailaren 29ko AGINDUA, Eskultura-lanentzako Erakustoki Tinko bat sortaraziz.

Agindu honen bidez sortarazten den Eskultura-lanetzako Erakustoki Tinkoaren helburuak, hauetxek dira: Artelan-alorrean dauden hainbat arazori erantzutea eta, bereziki, itxura-bidezko artelana den eskulturari dagozkionetan.

Horretarako, Hondarribian (Gipuzkoa) dagoen Urdanibia izeneko Jauregia erosi da, bereoneratuz eta egokituz. Eraikintza honek, artelanen erakusketak egiteko leku haundiak dituzten behe-oin bat eta hiru oin ditu, pisu astuneko eta egitura haundiko artelanak hartzeko gertatuta daudelarik.

Behe-oinean Liburutegia, Agiritegia eta Batzar-aretoa jarriko dira, gainontzeko oinak eskultura-lanen kokalekutarako eta erakustokitarako izango direla.

Horiek horrela, Ekainaren 27ko 145/1983 Dekretoko Azken Erabakiak ematen duen baimenaz baliatuz, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

*1. Atala.*—Agindu honen bidez, "Eskultura-lanentzako Erakustoki Tinko" bat sortarazten da, Artelanak orohar eta euskal eskultura bereziki indartzeko beharrezko bide gisa, horretarako Hondarribiako Urdanibia izeneko Jauregiaz baliatuz.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACION Y CULTURA

**634**

ORDEN de 29 de Febrero de 1984, por la que se crea la Galería Estable de Escultura.

La Galería Estable de Escultura que se crea por la presente Orden pretende cubrir una serie de necesidades en el mundo de las Bellas Artes, y, más concretamente, en esta rama de las artes plásticas como es la escultura.

Para ello, se ha adquirido, rehabilitado y acondicionado el Palacio de Urdanibia, sito en Hondarribia (Guipúzcoa). Este edificio consta de planta baja y tres plantas con amplios espacios destinados a la exposición de las obras, estando adaptadas dichas dependencias para acoger obras de gran peso y volumen.

En la planta baja se situarán la Biblioteca, Archivo y Salón de Actos, constituyendo las restantes plantas el lugar de ubicación y exposición de las obras escultóricas.

Por todo ello, en uso de la autorización contenida en la Disposición Final del Decreto 145/1983, de 27 de Junio,

DISPONGO:

*Artículo 1.*—Por la presente Orden se crea la "Galería Estable de Escultura" como instrumento necesario para potenciar las Bellas Artes en general y la escultura vasca en particular, sirviéndose para ello del Palacio de Urdanibia, en Hondarribia.

Ekainaren 27ko 145/1983 Dekretoz sortarazitako Itxura-bidezko Artelanak suztatzeko zerbitzuaren baitan sortzen da Erakustokia, Erabaki horren bidez Hezkuntza eta Kultura-Sailaren ihardutze-arauak finkatu zirelarik (83-7-27-ko E.H.A.A., 111. alea).

2. *Atala.*—Erakustoki honek beteko lituzkeen helburutariko batzuk, honako hauek lirateke:

a) Euskal Herriko bertako eta hemen errolderatutako eskulturagile nagusien lanak ezagutzera ematea, hedatzea eta beren lanak merkataritza-bideetan jartzeko ahalbideak ematea.

b) Eskulturari buruzko gorabeherak bideratzeko edonorentzako eztabaidatoki bilakatzea.

c) Artelanei atxikitako kultura-ekintzen bultzatoki izatea.

3. *Atala.*—Xede hauek burutzeko, Hezkuntza eta Kultura-Sailburuak, Kultura-Sailburuordearen saloz, Artelan-arloan berariz gaitutako eta arlo horri lotutako pertsonek osatutako epaimahai bat izendatuko du urtero; honek, herri-mailako deialdi baten ondoren, Erakustokiak eman ditzan zerbitzuen eskubidedun izango diren eskulturagileak aukeratze-ardura izango du.

Horietaz gain, 1982.eko Urriaren 7ko Agindūz (82-10-23-ko E.H.A.A.) sortarazitako Gure Artea Saria irabazi dezanak ere, eskubide berak izango ditu.

4. *Atala.*—Eskubidedun artegileei buruzko behin-betiko ebazpena emango du Hezkuntza eta Kultura-Sailburuak, aldi berean Artezte-Batzordea sortuko duelarik; eskubidedunak, Gure Artea Sariaren irabazlea eta Epaimahaiburu izango den Kultura-Sailburuordea edo honek esku eman diezaion pertsona izango dira Batzorde honetako partaideak.

5. *Atala.*—Artezte-Batzordea eratu ondoren, honek, bere iharduera, tegien banaketa, egingo diren ekintzapideak eta bertan erakusgai egon diren artelanen hedaketa eta ezagutarazte-lanak, finkatuko ditu; hori dena, horretarako izendatutako diruegitamuaren barruan.

Era berean, eta lehendakariak hala eska diezaionean, aurreko idazatian aipatzen ez diren gaiei buruz erabaki edo aholkua emango du, behar izan dadinaren arauera.

6. *Atala.*—Esku-emangai izan daitekeen Epaimahaiburuak bere ukoa eman diezaioke Batzordeak aurkez lezakeen edozein gairi.

7. *Atala.*—4. atalean aipatzen den Erabakiz, Artezte-Batzorde berria izendatuko da.

Bai Erabaki hau eta bai urtean behingo deialdia ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

Gasteiz, 1984.eko Otsailak 29.

Hezkuntza eta Kultura-Sailburua,
PEDRO MIGEL ETXENIKE LANDIRIBAR.

La Galería quedará encuadrada dentro del Servicio de Promoción de Artes Plásticas, creado por Decreto 145/1983, de 27 de Junio, por el que se establecen las normas orgánicas del Departamento de Educación y Cultura (B.O.P.V. n.º 111, de 27-7-83).

*Artículo 2.*—Entre los objetivos que esta Galería pretende cubrir están:

a) Dar a conocer la obra de los principales escultores originarios o empadronados en el País Vasco, divulgándola y ofreciéndoles la posibilidad de comercializar sus obras.

b) Convertirse en un foro abierto que canalice el debate en torno a la escultura.

c) Ser un elemento impulsor de las actividades culturales relacionadas con las Bellas Artes.

*Artículo 3.*—Para llevar a cabo estos objetivos, el Consejero de Educación y Cultura, a propuesta del Viceconsejero de Cultura, nombrará anualmente un jurado compuesto por personas especializadas, ligadas al mundo de las Bellas Artes, que se encargará de seleccionar a los escultores que, previa convocatoria pública, serán beneficiarios de los servicios que la Galería preste.

Además de éstos, también gozará de los mismos derechos el ganador del Premio Gure Artea correspondiente, premio creado por Orden de 7 de Octubre de 1982 (B.O.P.V., n.º 137, de 23-10-82).

*Artículo 4.*—El Consejero de Educación y Cultura resolverá definitivamente sobre los artistas beneficiarios, constituyéndose por el mismo acto la Junta Rectora de la que formarán parte los beneficiarios, el ganador del Premio Gure Artea y, además, el Viceconsejero de Cultura o persona en quien delegue, que ostentará su Presidencia.

*Artículo 5.*—Una vez constituida la Junta Rectora, ésta establecerá el régimen de funcionamiento interno, así como la distribución de espacios, actividades a realizar y todo lo relacionado con la divulgación y difusión de las obras allí expuestas, todo ello dentro del presupuesto asignado al efecto.

Asimismo, y a requerimiento del Presidente, decidirá o asesorará, según los casos, sobre aquellos temas que no estén comprendidos en el apartado anterior.

*Artículo 6.*—La Presidencia, que será delegable, podrá ejercer el derecho de veto sobre cualquier cuestión que se plantee en la Junta.

*Artículo 7.*—La Junta Rectora se renovará por medio de la Resolución a que hace referencia el artículo 4.

Tanto esta Resolución como la convocatoria anual serán publicadas en el B.O.P.V.

Vitoria-Gasteiz, a 29 de Febrero de 1984.

El Consejero de Educación y Cultura,
PEDRO MIGUEL ETXENIKE LANDIRIBAR.

# Bestelako Agintza eta Erabakiak
# Otras Disposiciones y Acuerdos

## HEZKUNTZA ETA KULTURA-SAILA

635

Hezkuntza eta Kultura-Sailaren 1984.eko Otsailaren 24ko AGINDUA, heziketa-erapidearen laguntza-taldeentzako dirulaguntzak emateko deia eginez.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACION Y CULTURA

635

ORDEN de 24 de Febrero de 1984, del Departamento de Educación y Cultura, por la que se convocan subvenciones para equipos de apoyo al sistema educativo.